

ANE LABAKA IDAZLE ETA BERTSOLARIAK 'BARRASKILOEK BAINO BAT GEHIAGO' ELEBERRIA KALERATU DU



Nobela honetako protagonista Sara da, hamar urteko neskato bat. Bere gurasoak banandu egin dira. Orain, Sara egoera berrira egokitu beharko da, bere lekua topatuz eta dolua gaindituz.

Sara izeneko hamar urteko neskato bat da Ane Labakak gaur aurkeztu duen *Barraskiloei baino bat gehiago* liburuaren protagonista. Eleberria eszena jakin batekin hasten dela azaldu du idazle eta bertsolari lasartearrak: "Sararen gurasoek, sukaldeko mahaia inguruan daudela, banatzera doazela jakinarazten diote. Une hori abiapuntutzat hartuta, hortik aurrerakoak kontatzen ditu nobelak. Familia hori nola desegituratzen den, Sarak bere lekua nola topatu behar duen berriro, kaos horren erdian nola kokatzen den...", kontatu du Labakak.

Abiapuntu horren bidez, liburuan familia ereduaren inguruan hausnartzen dela nabarmendu du egileak, "maitasuna ere gaitzat hartzen da nobelan, askotan betierekoa den maitasun hori eta badirudiena ez dela formaz aldatzen eta hau, justu, kontrakoa erakustera dator".

Idazle bezala, Labakarentzat "hamar edo hamaika urteko neskato horren ahotsetik lehenengo pertsona kontatzea eta aldiro bere hitzetara, bere irudietara, bere esateko moduetara egokitzea" sailena izan da. Zentzu horretan, Uxue Razquin Ereineko editoreak ahotsa eta estiloa nabarmendu ditu, "erronka handia iruditzen zait eta modu berean ariketa oso interesgarria hamar urteko neskato baten ikuspegitik nobela bat kontatzea, are gehiago lehenengo pertsona aukeratzeko bada, Anek egin duen moduan". Editorearen arabera, hasieratik bukaeraraino sinesgarria izan behar da istorioa, irakurlea hasieratik harrapatzea eta istorioan murgiltzeko.

Pedagogiko izateko asmorik gabe idatzi duela aitortu du Labakak, "ez nuen moralejarik edo irakaspenik eman nahi, baina bai etxeko lanei emanak diren aitzak agertzea, ama idazleak, ama lesbianak, aitona maitakorrak... Saiatu naiz, zeharka bada ere, horrelako pertsonaia eta gaiak lekua egiten", amaitu du idazleak.

Facebook Twitter

You may also like

Ahoz kontatu eta belarriz jasotako testuak bildu ditu Uxue Alberdik 'Belarriko Kilkerrak' liburuan
 Posted on 2023-10-05 by KulturSharea
 Liburuan hiru zutabe nagusi dira: ahozkotatua, transmisioa eta [...]
 Bideo_albisteak literatura

Dani Martirena da 'Kultur Zarea' bideo bildumaren protagonista berria
 Posted on 2023-10-02 by KulturSharea
 Dani Martirena Indart eta Ana Ibañez Elosua legasarrak haurrendako lau [...]
 Bideo_albisteak literatura

Martin eta Xabier Etxeberria anaiek 'Artxipelagoa' podcastari komiki formatua eman diote
 Posted on 2023-09-22 by KulturSharea
 Idazleek Alex Sanvi eta Sergio Roman Sedyas ilustratzaileak izan [...]
 Bideo_albisteak literatura

Izarok 'X eta besteak' izeneko kantua eta bideoklipa aurkeztu ditu
 Posted on 2023-09-22 by KulturSharea
 Bideo_albisteak musika

Iragan hurbila gure orainera ekarri du Xabier Mendigurenek 'Oso latza izan da' eleberrian
 Posted on 2023-09-20 by KulturSharea
 Lanak Joxe Arregiren atxilotetatik heriotzara biderako aldia eta [...]
 Bideo_albisteak literatura

Antton Telleriak 'Nekatutak-Grabatutak' bakarrizketa edonork ikus dezan igo du sareterara
 Posted on 2023-09-18 by KulturSharea
 Bideo_albisteak

Jon Maiak zuzendutako 'Kastellanuek' dokumentala ikusgai
 Posted on 2023-09-12 by KulturSharea
 Kastellanuek dokumentala ikusgai jarri du sarean Azpeitiko Udalak. Iaz [...]
 Bideo_albisteak zinema

Amaiurko Gaztelua nolako zen ezagutzeko birsorkuntza birtualaren bideoa bertako museoan ikusgai
 Posted on 2023-09-06 by KulturSharea
 Bideo_albisteak

Baztandarren Biltzarra Elizondora bueltatu zen atzo bere 60. urteurrena merezi zuen bezala ospatzeko
 Posted on 2023-07-17 by KulturSharea
 Gartzango orgak eskuratu zuen Baztandarren Biltzarrako orgen [...]
 Bideo_albisteak

Onki Xin taldeak 'Zailü!' abestia eta bideoklipa kaleratu ditu
 Posted on 2023-07-10 by KulturSharea
 Bideo_albisteak musika

Zabaldu:

[← AHOZ KONTATU ETA BELARRIZ JASOTAKO TESTUAK BILDU DITU UXUE ALBERDIK 'BELARRIKO KILKERRAK' LIBURUAN](#)



Lege oharra

✉ albisteak@kultursharea.eus

Publizitatea



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
 DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
 Kultur eta Hizkuntza Politika Saila, Ministerio Polibateratuaren (MINTED) eraginpean

LANKIDETZAK

